

NAZIO ARTEKO UNEA

BELTZEN DOLORE
ERRABIATUA

INORK espero ez zuen momentuan errebelatu dira berriz ere Ipar-Amerikako beltzak. Baiñan zeinek uste zuan lege eder batzuk gora-bera ordena egina zegocla? Azken illabete auetako baretasuna itxurazkoa zela edonork sumatu zezakean gauza zen.


Iñork espero ez zuan momentuan eta iñork espero ez zuan Ipar-Amerikako bazter batean piztu da sugarra berriro. Batzuek aritu egingo dira: izan ere ez al-da Kaliforniako beltzen barrufia gutxien desfaborizatua, bezte barrutiek in komparaturik beintzat?

Bigarren Gerrate ondoren lurralde auetako industri-leritzea zela bide, beltzak millaka abiatu ziren Kalifornia aldera: illero bi milla emigrante edo, eta naiz eta azkenengo urteotan gende korrontea ain aundia ez bazan, Los Angeles eta San Francisco beltzentzat lur desiratuak ziren. Modu onetan sortutakoak dira Wats eta Newton'go mixerlaghettoak. Egia da erri auetako beltzen bizitz-mailla bezte aldetakoena baino gorago dagoela. Baiñan arrazoi onek ez du ezer esan nai espada okerbidia txikia izanagatik ez dela zuzenbidea. Emen edonun bezela zuri gelenen konzentzi ona dela kausa, ausi ezinezko mugak eralki dire alen inguruan.

Segregazioa bi eretan agertzen zaigu Ipar-Amerikan: bata, den bezela agertzen dena egun argitan, itxurak aritu gabe, Egoaldean agertzen den bezela, baiñan denak gutxi gora bera kondatzen dutenak, eta bezte estalia, itxuraz ezer gutxi dana, baiña uste gabean zibilizazio eta gogo-moide oso bat kutsatzen duana, garbitzeko lenengoa baino askosaz saillagoa.

Dena dela bi eretako segregazioak ondoria berdiñak dakarkite luzaroan. Egumero edozein beltzek ikusi ahal dezake bere arrazakoen mixeria eta inguruan barrelatzen den aberastasun lilluragarria. Komparazioa ez litzake ain jasan-ezina izango, pobreziatik aberastasunera iragaltzea posible balego, aunditasun ori noizbaiteko esperantza izango balitz. Baiñan beltzaren patua menpeko izatea da mailla izatea da mailla guzietan gau egun Ipar-Amerikan, ta ori edozein beltzek sentitzen eta sufritzen du bere instintoan. Emendik datorriko ezin-eginaeren sentipen bizi bat, "complejo de frustración" izugarria. Eta sentipen oneri iriteera emateko, edo etsipena edo errebeldia bezte biderik ez dago. Onela artikulu onen burua oin biurta zait: beltzen dolore errabiata.

MIKEL LASA



Beartasunaren kultura
IPAR-AMERIKAN

Ipar-Amerika'ko gobernu gizonak argi ta garbi ametitu dute beltzen artean sortu diran zalapariak bere oñarri ta sustria beartasuna dutela. Baiñan askok uste duten bezela Ipar-Amerika ko beartasuak ez dira beltzak bakarrik, beste jende talde asko ere ba dira beartasun gorrian bizi diranak: portorrikotarrak, Italiarrak, Irlandatarrak t.a.

Ipar-Amerika'n enkueta asko egin ondoren beartasunaren neurria jarri dute 3.000'etik 3.500'era dolar irabaztea. Ba neurri ori oñarri artzen badugu Ipar-Amerika'n 50 millioi beartsu arituko ditugu. Oñatik beltzak sei millioi bakarrik dira. Au ikusita esan genezake gaur beltzak egin duten reboluzioa biar beste jende taldeak, edo danak bat eginta, egin dezatekela.

Johnson lendakariak orain dala gutxi beltzen aldeko bi lege firmatu ondoren esan zienak: orain eskatu zuen dereixuak betetzeko, aguro izan du erantzuna. Zerda Angeles'ko reboluzioa beltz beartasun eskaera besterik? Eskaera ori ezbazan izan eskunik ote zituan Johnson'ek 1850 millioi dolar nazio guziko beartasunari aurka egiteko?

Baiñan Ipar-Amerika'ko beartasunaren problema astoz gogorragoa da oraindik (nik uste dut beartasun izaera berari dago-kiona dala), alegia beartasunak bere kultura sortzen duela. Obe-tago esateko, beartasunak sortzen duen kulturari subkultura deitu bear genioke.

Ta subkultura austea arront gogorra da. Beartasunaren sub-kultura uztai bat bezela, ausi ezina, bertatik irrenteko biderik ez duna. Beartsuari befi onela bear duala adierazten dio, ez du-tela ikasi bearrik. Zerlarako? Eskola joan gabe bizi litzeketa.

Nola irli bide bearrik subkulturanen baso illun orretan? Do-larrakin bakarrik ez beinpein.

IMANOL LARREA



Martin Luther King



TARZAN: Zinema batek
erakusten duena

RIKARDO ARREGI

Lengo egunean zinera joan nintzen nere errian eta Tarzan'en pelikula bat ikustea tokatu zitzaidan. Beltzak gaiztoak, mokoloak, itxusiak eta astokilloak bezela azaltzen ziren. Zuriak berriz onak eta gairantzeko bertute guztiak zituztelarik. Beltzen laguna zen zuria, traidorea, gaiztoa ta itxusia zen. Ta pelikula ori "apta para todos los públicos" zela pentsatzea ere! Ba dirudi topiko bat biurto arren eleiztarren artean amar aginduetatik seigarrena bakarrik dela inportantea. Askotan ori pentsa erazitzen dute zinema kalifikazio oiek.

Benetan miragarria dela zurien, okzidenteko zurien orimenik ezal Ori zen Los Angeles'n gertatu diranen berri egumerokotan irakurtzen nituanean. Ta oraindikan ere arri-tzekogoa da Ipar-amerika'ko agintari genenak gertakizun oien sustrian "organizatutako" suberbio bat ikusi nai izatea. Ori bat dela gertakizuna ezertxo ere ez ulertzea. Ba dirudi amerikanoak mantatikotako utsak biur-tzen ari direla. Lehenago beste batzuek nun-nai masioiak eta judioal ikusten zituzten bezela orain amerikanoak nun-nai komunista ikusten dituzte.

Ahaztuta ote dituzte zuriak Amerika'n egindako genozidio guztiak? War-West'eko makina bat pelikulan indio guztien gaiztakeri aundia sinistu erazi digute. Baiñan ba dirudi historia bestalde dela.

Zuriak, okzidenteko zuriak bere-ganatu dituzten lurraldetan, bertan

ziran lehengoak ill ez baldin badituzte zearo okzidentalizatu nai izan dituzte. Baiñan zorionez ba dirudi au ez dela oso osorik gertatu. Ego Amerika'ko alderdi geienetan gobernu geienak gerrilleroen problema daukate. Alderdi oietan erreboluzio-zale, gerrillero geienak indioak dira. Oraindikan okzidentalizatu gabeko indioak, Estadu aietan bizi diren zuriak arrazoi guztierekin lapurrak deitzeko eskubidea dutenak. Eta bearteko izandu da erreboluzio bat iristea politikokoak indoi oiei bere izkuntzan itzegiten asteo. Orain arte orrelako zerbaitek Elizak bakarrik egin zuen ta gaitiera toki batzuetan bakarrik.

Arri-zekoa da gure ideien zuzen-tasuna. Beltzak ta guk esplotatu ditugun gairantzekoak azkenean bere bizi-ezina lertu ditulako ta jollajea egin dutelako, biolentzia jo dutelako: ez zen ori bidea esaten asten gera. Guk nai duguna egin ondorenean pazientzia beste bedikatzen asten gera. Bide orren bitartez ez dela ezertxo ere lortuko, beltzak ez dutela Ipar-amerika'n ezer lortuko.

Gutxienean fariseoak ez gaitzen izan. Ori pentsatzen baldin badugu gauzei beren izenez deitu bear diegu. Au da esan bear duguna: Guk ezarririkotako desordena sakratua da, noizean bein justiziaren apur batzuek emango ditkizutegu txin-soak izaten baldi bazerata. Gora realismoa: gu ondo bizi gera zuek izurratu zaitzete. Amen.